waste lab
bizkaia

WASTE LAB BIZKAIA CAMPUSA

# Hondakinen kudeaketa eta prebentzioa zure enpresan

**Doako eta ziurtatutako** prestakuntza, ETE-ko langileei, autonomoei eta **ekonomia zirkularreko praktikak** ezartzeko interesa duten profesionalei zuzenduta.



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Cofinanciado por la Unión Europea

MINISTERIO DE TRABAJO Y ECONOMÍA SOCIAL

Fondos Europeos

Empleaverde+

Bizkaia
garbiker

**Helburua:**

Prestakuntzaren azken helburua ikastarora joaten diren pertsonek enpresa baterako Hondakinak Kudeatzeko Plan bat garatu ahal izatea izango da bere jardueraren esparruan, hondakinen prebentzioa, berrerabilpena eta birziklapena hobetu nahian, ingurumena errespetatzen duen eta Garapen Iraunkorreko Helburuekin bat datorren bidea.

**Waste Lab Bizkaia:**

Waste Lab Bizkaia hondakinen prebentzioaren eta kudeaketaren arloan, hondakinen kudeaketaren jasangarritasunari eta ekonomia zirkularrari buruzko ikerketa, berrikuntza, esperimentazioa eta lankidetza bultzatzen dituen erreferentziazko zentroa da. Euskadiko Parke Teknologikoan, Derion, kokatuta dago, eta ikerketa- eta esperimentazio-zentroa da. Bertan, hainbat baliabide material daude (ekipamenduak eta lehengaiak) zeregin horietan diharduten hainbat kolektibotatik datozen pertsonen eskura, eta instalazioak bisitatzen dituen publiko orokorrarekin elkarreragin ahal izango dute, bertan egingo den sentsibilizazio eta dibulgazio-jardueraren barruan.




**Modalitatea:**

prezentziala eta sarean (asteazkenetan 15h):

- **9 modulu hibrido** (3 ordu presentzial + ordu 1 sarean).
  - Presentzialki: asteazkenetan 15:00-18:00.
  - Sarean (tutoretza): asteazkena 15:00-16:00 (prestakuntzaren ondorengo asteazkenean).
- **2 modulu %100 sarean** (4 ordu).

**Metodologia:**

Klase magistral presentziala, honen amaieran ikaslegoari erronka baten kasu praktiko bat botako zaiolarik, hurrengo bi asteetan ebatzi beharrekoa. Denbora horretan, ikaslegoak tutoretza jasoko du, ordubeteko bilera telematiko batean, eta posta elektronikoaren bidez zalantzak erantzungo zaizkio baita.

Erreserbatu zure plaza orain eta aldaketaren parte izan:

**Izena eman hemen**

**Egutegia:**
2026ko otsailetik ekainera (bi asteroko klasea).

| | | |
|---|---|---|
| **1. MODULUA:** **Ekonomia zirkularra** | Otsailaren 4an | 15-18 ordu |
| **2. MODULUA:** **Ekonomia zirkularreko arau-esparrua eta politikak** | Otsailaren 11an | 15-18 ordu |
| **3. MODULUA:** **Enpresaren egungo egoeraren diagnostikoa** | Otsailaren 25ean | 15-18 ordu |
| **4. MODULUA:** **Produktuen diseinua eta birdiseinua** | Martxoaren 11an | 15-18 ordu |
| **5. MODULUA:** **Baliabideen eta lehengaien kudeaketa** | Apirilaren 8an | 15-18 ordu |
| **6. MODULUA:** **Negozio- eredu zirkularrak** | Apirilaren 22an | 15-18 ordu |
| **7. MODULUA:** **Praktika zirkularren ezartzea produkzioan** | Maiatzaren 6an | 15-18 ordu |
| **8. MODULUA:** **Komunikazioa eta sentsibilizazioa** | Maiatzaren 20an | 15-18 ordu |
| **9. MODULUA:** **(I) Hondakinak prebenitzeko planaren prestaketa** **(II) Bizkaiko Foru Aldundiaren Trantsizio Berderako Programa** | Ekainaren 3an | 15:00-17:30 17:30-18:00 |
| **10. MODULUA:** **Gizonen eta emakumeen aukera berdintasuna** | online (norberak aukeratua) | |
| **11. MODULUA:** **Trebetasun bigunak** | online (Ekainaren 17an) | |

Hondakinen kudeaketa eta prebentzioa zure enpresan

waste lab bizkaia

Bizkaia foru aldundia diputación foral



## 1. MODULUA:

# Ekonomia zirkularra

2026/2/4 15:00-18:00 Aurrez aurreko

**Helburuak:**

Modulu honetan, ekonomia zirkularrari buruzko oinarrizko ezagutzak eskainiko dira, indarrean dagoen eredu ekonomikoa garapen ekonomiko jasangarria ahalbidetuko duten eredu berrietara birdiseinatzeko tresna gisa.

**Prestakuntza-programa:**

- Ekonomia zirkularraren definizioa eta printzipioak.
- Ekonomia linealaren eta zirkularraren arteko desberdintasunak.
- Onura ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak.
- Arrakasta-kasuak maila globalean eta lokalean.

**Hizlaria:**

**Jose Mª Fernandez**
IHOBE: Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa.

**Jose Mª Fernandez**. Ihobe-Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoko ekonomia zirkularreko zuzendaria. Industria Ingeniaritzan titulatua, informatikaren arloan zein produktuen ingurumen-hobekuntzan eta bizi zikloaren analisian (BZA) egin du lan. Ekodiseinuko eta BZAko irakaslea izan zen Espainiako zenbait unibertsitatetako masterretan, eta Nazio Batuen Ingurumen Programak (UNEP-PNUMA) aditua izendatu zuen. Gaur egun, Ingurumen Ministerioarekin batera, Espainia ordezkatzen du ekodiseinuari, ekoizpenari eta kontsumo jasangarriari buruzko Europako hainbat forotan. 2002an sortu zenetik, Bilboko Ingeniaritzako Goi Eskola Teknikoko “Ekodiseinu Gela” kudeatzen du (gaur egun, Basque Circular Hub), eta, 2012tik, “Basque Ecodesign Center”eko arduraduna da.

Cofinanciado por la Unión Europea · Ministerio de Trabajo y Economía Social · Fondos Europeos · Empleaverde+ · Bizkaia garbiker

Hondakinen kudeaketa eta prebentzioa zure enpresan

waste lab bizkaia

Bizkaia foru aldundia diputación foral

## 2. MODULUA:

# Ekonomia zirkularreko arau-esparrua eta politikak

2026/2/11 15:00-18:00 Aurrez aurreko



**Helburuak:**

Modulu honek Bizkaiko ekonomia zirkularrerako trantsizioari lotutako lege-esparrua eta politika publikoak azalduko ditu.

Helburua, modulua sektoreko profesionalek eta interesa duten erakundeek ekonomia zirkularra ezarpenaren eremutik hobeto ezagutzeko baliagarri izatea da. Horretarako, ezagutza eta esperientziak trukatzeko gune bat sortuko da, enpresa-praktika hobetzen lagundu ahal duena.

**Prestakuntza-programa:**

- Europako, estatuko eta autonomia-erkidegoko legedi garrantzitsua.
- EAEko estrategiak eta ekintza-planak.
- Diru-laguntzak eta laguntzak.

**Hizlaria:**

**Sofía Garcia Arana**
Ekoiure: Abokatuen bulegoa, administrazio eta merkataritza zuzenbidean espezializatua. Ingurumen araudian eta ingurumen gatazken konponketan aditua. Aholkularitza zerbitzua eskaintzen die erakunde publiko eta pribatuei, hirigintza eta ingurumen legeria betetzeko.

**Sofía Garcia Arana**. Zuzenbidean lizentziaduna (EHU). Ingurumen Hezkuntzako Masterra UNEDen, Unibertsitatea-Enpresa Fundazioan eta UNESCO Katedran. Hirigintzako diplomaduna (IVAP-EVETU). Bizkaiko Abokatuen Bazkun Ohoretsuko Iraunkortasun Batzordeko koordinatzailea. Lan-praktika zabala, bereziki ingurumen eta hirigintza gaietan. Eskarmentu handia hainbat gairi buruzko arauen garapenen zirriborroak idazten: hondakinak, lurzoruak, zarata, mugikortasun iraunkorra, etab.


Cofinanciado por la Unión Europea · Ministerio de Trabajo y Economía Social · Fondos Europeos · Gobierno de España · Fundación Biodiversidad · Empleaverde+ · Bizkaia garbiker

Hondakinen kudeaketa eta prebentzioa zure enpresan

waste lab bizkaia

Bizkaia foru aldundia diputación foral

**3. MODULUA:**

# Enpresaren egungo egoeraren diagnostikoa

2026/2/25 15:00-18:00 Aurrez aurreko



**Helburuak:**

Prestakuntza-modulu honen bidez, ikasleek enpresaren egungo egoera ebaluatzen eta ekintza-plan bat taxutzen ikasiko dute, enpresak aurrera egin dezan hondakinak murriztera eta baliabideak berrerabiltzera bideratutako ekoizpen eta kontsumo eredu baterantz. Moduluaren helburua enpresak ingurumen-inpaktua murrizteko zenbait jarduera ezartzea da, enpresaren eraginkortasun operatiboa hobetzeko eta aukera komertzial berriak ezagutarazteko.

**Prestakuntza-programa:**

- Hondakinak ikuskatzeko eta ebaluatzeko metodoak.
- Puntu kritikoak eta hobetzeko aukerak identifikatzea.
- Bizi-zikloaren diagnostikoa eta analisia egiteko tresnak.

**Hizlaria:**

**Daniel Justel**
Mondragon Unibertsitatea.

**Daniel Justel**. Mekanikako ingeniari teknikoa, makinen diseinuko espezialitatea (1996), industria antolakuntzako goi-ingeniaria (2000) eta 2009tik doktorea Castellóko Jaume Lehen Unibertsitatean. Industria-produktuak desmuntatzeko diseinuaren ekoberrikuntzarako metodologia bat garatu eta baliozkotu zuen tesian. ACLIMA klusterreko zuzendaritza batzordeko kidea da. 1996az geroztik, Mekanika eta Ekoizpen Industrialeko sailean ari da irakasle, eta Mondragon Goi Eskola Politeknikoko ekonomia zirkularra eta jasangarritasun Industriala taldeko ikertzailea da. Arrasateko Zirkularraren Koordinatzailea. ECSIn egiten duen ikerketa eta ezagutzaren transferentzia ekonomia zirkularra eta jasangarritasuna ikertzera bideratzen da, diseinu industrialaren ikuspegitik (ekodiseinua, ekoberrikuntza, ekoeraginkortasuna eta pertsonetan oinarritutako diseinua). Ekonomia zirkularraren esparruan 6 doktore-tesi zuzendu ditu. Ekonomia zirkularra erakundeetan integratzeko proiektuen buru izan da, 28 sektoretako 140 enpresa baino gehiago erabiltzen ari diren Zirkularra eta INMOIN Zirkularra bezalako tresnak garatuz. Hainbat enpresatan aktiboki parte hartu du eta kolaboratzen du ingurumen-jasangarritasuna bultzatzeko. Besteak beste: Orona, Goizper, Irizar, Copreci, Fagor Arrasate, ULMA Taldea, Matz Erreka, Tecnalia, etab.

Cofinanciado por la Unión Europea
Ministerio de Trabajo y Economía Social
Fondos Europeos
Empleaverde+
Bizkaia garbiker

Hondakinen kudeaketa eta prebentzioa zure enpresan

waste lab bizkaia

Bizkaia foru aldundia diputación foral

4. MODULUA:

# Produktuen diseinua eta birdiseinua



2026/3/11 15:00-18:00 Aurrez aurreko

## Helburuak:

Modulu honen bidez, parte-hartzaileak beren enpresa eta erakundeetan prozesuak eta produktuak diseinatzeko eta birdiseinatzeko motibatu eta sustatu nahi dira, ekoizpenean baliabide natural ez-berriztagarrien erabilera optimizatzeko. Horretarako, bigarren mailako lehengaiak eta material birziklatuak erabiltzea sustatuko da, eta substantzia kaltegarrien sarrera minimizatu, errazago birziklatu eta berreskura daitezkeen produktuak lortzeko. Hala, ekonomia eredu iraunkorrago eta eraginkorrago baterantz bideratuko da.

## Prestakuntza-programa:

- Diseinu zirkularraren printzipioak.
- Ekodiseinu-teknikak eta materialak hautatzeko teknikak.
- Produktuaren balio-bizitza luzatzeko estrategiak.

## Hizlariak:

**Rikardo Minguez Gabiña**
Adierazpen grafikoko eta ingeniaritza-proiektuetako saileko zuzendaria.

**Francisco Campo**
IK ingeniaritza: Produktu, jarduera eta erakundeen ingurumen-profila neurtuz eta komunikatuz eko-berrikuntza zerbitzuetan espezializatutako enpresa.

**Rikardo Minguez Gabiña**. Ingeniaritza Mekanikoan espezializatua den Industria Ingeniaria. Rikardo Adierazpen Grafikoa eta Ingeniaritza Proiektuen Saileko Zuzendaria da 2016tik, Euskal Herriko Unibertsitateko 'Ekonomia Zirkularra: Enpresarako Aplikazioa' Masterreko Batzorde Akademikoko Zuzendaria ere bada, eta Proiektuen Ingeniaritzako Doktoretza Programako Batzorde Akademikoko Zuzendaria. Produktua Diseinatzeko Laborategia (PDL) koordinatu du 2005ean sortu zenetik. Ikerketa-talde honek, gaur egun, produktuen bizi-zikloaren analisia, ekodiseinua, alderantzizko ingeniaritza eta ekonomia zirkularra ditu ardatz.

**Francisco Campo**. Diseinu Mekanikoan intentsifikazioa duen ingeniari industriala, Ingurumen Kideak Ingeniería SLko bazkide sortzailea eta zuzendari gerentea da. Lanean daramatzan 20 urteetan, hainbat proiektu zuzendu ditu bizi-zikloa aztertzeko, ekoberrikuntzarako, ekoetiketatzeko eta produktuen eta erakundeen ingurumen-profila komunikatzeko, eta, oro har, ekonomia zirkularraren esparruan. Halaber, prestakuntza-ikastaro ugaritan parte hartu du, hainbat masterretan eta graduondoko ikastaroetan.

Cofinanciado por la Unión Europea
MINISTERIO DE TRABAJO Y ECONOMÍA SOCIAL
Fondos Europeos
Empleaverde+
Bizkaia garbiker

Hondakinen kudeaketa eta prebentzioa zure enpresan

waste lab bizkaia

Bizkaia foru aldundia diputación foral



**5. MODULUA:**

# Baliabideen eta lehengaien kudeaketa

2026/4/8 15:00-18:00 Aurrez aurreko

## Helburuak:

Moduluaren helburua parte-hartzaileak kontzientziatzea izango da enpresek ekonomia zirkularraren eredu baterantz aurrera egin behar dutela, lehengai finituen eskaeraren igoerak eta baliabide-eskasiak bultzatuta, bai eta beste herrialdeekiko mendekotasunak eta kliman eragindako zuzeneko inpaktuen ondorioz.

Lehengaiak erauzteak eta erabiltzeak ingurumenean dituen ondorioak, energia-kontsumoaren hazkundea eta sortutako $CO_2$ emisioak aztertuko dira.

## Prestakuntza-programa:

- Lehengaien kudeaketa eraginkorra.
- Berrerabiltzeko eta birziklatzeko barne-sistemak.
- Funtzionaltasunaren eta zerbitzuen ekonomia.

## Hizlaria:

**Soraya Prieto**
Tecnalia Research & Innovation Fundazioko zirkularitate arloko zuzendaria.

**Soraya Prieto**. Kimika Zientzietan lizentziatua eta Kimikan doktorea Euskal Herriko Unibertsitatean. Masterra laneko arriskuen prebentzioan, laneko segurtasun, higiene eta ergonomia eta psikologia aplikatuaren espezialitateetan. Eta PMP (Project Management Professional) ziurtagiria. Eskarmentu handia du ingurumenaren alorrean, hala nola uren tratamenduan, hondakinen balorizazioan, produktu berriak sintetizatzeko lehengai alternatiboen erabileran, $CO_2$-aren atzipen eta erabileran eta gasen garbiketan, eta aurreko gaiekin zerikusia duten eskualdeko, Espainiako eta Europako zenbait ikerketa-proiektutan parte hartu eta koordinatu ditu. $CO_2$-aren Espainiako plataforma teknologikoko (PTECO2) $CO_2$-aren erabilera-taldearen koordinatzailea da, biomasaren Espainiako plataforma teknologikoko (BIOPLAT) eta Europako Bio-based Industries Consortium-eko (BIC) bioproduktu-taldearen koordinatzailea, eta hainbat argitalpen, patente eta estatuko eta nazioarteko biltzarretarako komunikazioen egilea da.

Cofinanciado por la Unión Europea
Ministerio de Trabajo y Economía Social
Fondos Europeos
Empleaverde+
Bizkaia garbiker

Hondakinen kudeaketa eta prebentzioa zure enpresan

waste lab bizkaia

Bizkaia foru aldundia diputación foral

**6. MODULUA:**

# Negozio-eredu zirkularrak

2026/4/22 15:00-18:00 Aurrez aurreko




## Helburuak:

Moduluaren helburua ekonomia zirkularraren fenomenoaren inguruan dauden negozio-ereduak ulertzea eta aztertzea izango da. Bertan, baliabide ez-berriztagarrien ordez energia berriztagarriak, biomasa edo material birziklagarriak erabiltzen dituzten enpresen kasuak azalduko dira. Baita konponketa, eguneratze eta birsalmentaren bidez produktuen eta osagaien bizi-zikloa zabaltzeko diseinu jasangarria ezarri duten enpresen kasuak eta produktu-ereduaren ordez zerbitzu-eredua eta jabetza partekatua erabili duten negozio-ereduen kasuak ere azalduko dira.

## Prestakuntza-programa:

- Negozio-eredu zirkularrak.
- Eredu horiek arrakastaz ezarri dituzten enpresen azterketa kasuak.
- Merkaturatzeko estrategiak eta balio erantsia.

## Hizlariak:

**Nicola Cerantola**
Ecologing: Negozioek aurre egin behar dieten erronka globalei erantzuteko 2009an sortu den enpresa soziala.

**Gregorio Borge**
Zirkularte-Ekoberrikuntza: ekonomia zirkularrean eta hondakinekiko berrikuntzan espezializatutako aholkularitza.

**Nicola Cerantola**.
Diseinu jasangarrian, ekonomia zirkularrean eta ekintzailetza berdean aritzen den ingeniari mekanikoa. Ecologing-eko zuzendaria, 2003an Ecocanvas eredua garatu zuen, negozio zirkularrak diseinatzeko metodologia arina. Nazioarteko gradu eta masterretako irakasle elkartua IED Madrid, EOI, Madrilgo Unibertsitate Politeknikoa, Nafarroako Unibertsitatea / Isem Business Fashion School, IE Business School, ICAI Comillas, UCM.

**Gregorio Borge**.
Kimika Zientzietan lizentziatua eta doktorea Euskal Herriko Unibertsitatean, non Kimika Analitikoko irakaslea ere izan den. UPV/EHUn, Centre de National de la Recherche Scientificen (CNRS, Pau – Frantzia) eta Kernforschungszentrum Karlsruhe-n (KfK, Karlsruhe – Alemania) egin zituen bere prestakuntza eta ikerketa-lanak. Zirkularteko hondakinen eta ekonomia zirkularraren inguruko berrikuntza-proiektuen arduraduna da.

Cofinanciado por la Unión Europea
Ministerio de Trabajo y Economía Social
Fondos Europeos
Empleaverde+
Bizkaia garbiker

Hondakinen kudeaketa eta prebentzioa zure enpresan

waste lab bizkaia

Bizkaia foru aldundia diputación foral

7. MODULUA:

# Praktika zirkularren ezartzea produkzioan



2026/5/6 15:00-18:00 Aurrez aurreko

**Helburuak:**

Prestakuntza-modulu honen bidez, eta enpresaren baliabide materialak edo lehengaiak tartean diren prozesuak aztertu eta enpresaren hondakinak non sortzen diren zehaztu ondoren, parte-hartzaileek gai izan beharko dute xede eta helburu argiak zehazteko, enpresan ekonomia zirkularra ezartzea lortzeko.

**Prestakuntza-programa:**

- Ekoizpen zirkularrerako praktika hobeak.
- Teknologia gaitzaileak (4.0 industria, IoT, blockchain).
- Hondakinen kudeaketa ekoizpen-prozesuan.

**Hizlaria:**
**Gregorio Borge**
Zirkularte-Ekoberrikuntza: ekonomia zirkularrean eta hondakinekiko berrikuntzan espezializatutako aholkularitza.

**Gregorio Borge**. Kimika Zientzietan lizentziatua eta doktorea Euskal Herriko Unibertsitatean, non Kimika Analitikoko irakaslea ere izan den. UPV/EHUn, Centre de National de la Recherche Scientificen (CNRS, Pau – Frantzia) eta Kernforschungszentrum Karlsruhe-n (KfK, Karlsruhe – Alemania) egin zituen bere prestakuntza eta ikerketa-lanak. Zirkularteko hondakinen eta ekonomia zirkularraren inguruko berrikuntza-proiektuen arduraduna da.

Cofinanciado por la Unión Europea · Ministerio de Trabajo y Economía Social · Fondos Europeos · Empleaverde+ · Bizkaia garbiker

Hondakinen kudeaketa eta prebentzioa zure enpresan

waste lab bizkaia

Bizkaia foru aldundia diputación foral



**8. MODULUA:**

# Komunikazioa eta sentsibilizazioa

2026/5/20 15:00-18:00 Aurrez aurreko

**Helburuak:**

Moduluaren helburua erakundearen barruan garatutako ekonomia zirkularreko ekimenei buruz komunikatzeko eta sentsibilizatzeko trebetasunak garatzea izango da, enpresako langileak eta kanpoko publikoa kontzientziatzeko, babesteko eta inplikatzeko, baita prozesuan modu aktiboan eta jarraituan parte hartzera iristeko ere.

**Prestakuntza-programa:**

- Barne eta kanpo komunikazioko estrategiak.
- Langileen prestakuntza eta sentsibilizazioa.
- Marketin berdea eta erantzukizun sozial korporatiboa.

**Hizlaria:**

**Andres Fernandez**
Ciudadano Kane: Iraunkortasunerako komunikazio-estrategiak garatzen espezializatutako agentzia.

**Andres Fernandez**. Informazio Zientzietan lizentziatu zen Nafarroako Unibertsitatean, eta Kazetaritzako masterra egin zuen EHUn (El Correo). Ingurumen-komunikazioan oinarritutako ibilbide profesionala egin du. 30 urte baino gehiagoko esperientziarekin, Gasteizko Udaleko ingurumen-arloko komunikazio-estrategiaren arduraduna izan da, eta hiriko 2012ko Europako hiriburu berdearen komunikazio-plana garatzeaz arduratu zen. Bere ibilbidean zehar, ekonomia zirkularraren eta trantsizio ekologikoaren inguruko hainbat komunikazio eta sentsibilizazio estrategia ezarri ditu, eta Conama ingurumen-kongresu nazionaleko ohiko kolaboratzailea da. 2015ean Ciudadano Kane Comunicación agentzia sortu zuen, eta bertako CEO da. ESDENeko Ekitaldi eta Komunikazio Masterreko irakaslea izan da, eta hizlaria komunikazioari eta iraunkortasunari buruzko hainbat forotan.

Hondakinen kudeaketa eta prebentzioa zure enpresan

waste lab bizkaia

Bizkaia foru aldundia diputación foral

**9. MODULUA (I):**

# Hondakinak prebenitzeko planaren prestaketa

2026/6/3 15:00-17:30 Aurrez aurreko



**Helburuak:**

Parte-hartzaileak hondakinak prebenitzeko plan propioa egiteko gaitzea da modulu honen helburua, hark erabakiko baitu zer aldaketa egin behar diren, eta zer pauso eman behar dituen bakoitzak plan hori gauzatzeko: zer egin behar duen, zer epe dituen, zer baliabide behar dituen...

Modulu honetan, prebentzio-plana aplikatzean izango diren emaitza ukigarriak neurtzen irakatsiko da, jarduera-adierazle gakoen bidez (KPI). Adierazle horiek neurtu egingo dute zer aurrerapen egin den ezarritako ekonomia zirkularreko xedeetara iristeko, eta, hala, prebentzio-plana egokitu ahal izango da.

**Prestakuntza-programa:**

- Hondakinak prebenitzeko plan baten egitura eta osagaiak.
- Plana egiteko eta haren jarraipena egiteko metodologia.
- Parte-hartzaileek egindako planen aurkezpena eta ebaluazioa.

**Hizlaria:**

**Zigor Garcia**
Cimas: Topografiako ingeniari teknikoa eta Geografiako lizentziaduna.

**Zigor Garcia**. Topografiako ingeniari teknikoa eta Geografiako lizentziaduna. Duela 20 urtetik, udal eta industria-hondakinen, eraikuntza eta eraispen-hondakinen eta hondakinen inbentario bateratuen inbentarioak egiten parte hartu du, baita udalerri, lurralde eta autonomia-erkidego mailako adierazleen kalkuluan ere. EAEko Hondakinak Koordinatzeko Organoan parte hartu du.

Hondakinen kudeaketa eta prebentzioa zure enpresan

waste lab bizkaia

Bizkaia foru aldundia diputación foral

**9. MODULUA (II):**

# Bizkaiko Foru Aldundiaren Trantsizio Berderako Programa

2026/6/3 17:30-18:00 Aurrez aurreko



**Helburuak:**

Enpresa txiki eta ertainei zuzendutako ekonomia zirkularreko programak ezagutaraztea, Bizkaiko enpresek beren aztarna ekologikoa murritz dezaten eta ingurumen-inpaktu garbia murrizten lagunduko duten inbertsioak eta ekonomia zirkularrarekin lerrokatutako ingurumen-berrikuntzako proiektuak babestuz.

Laguntza programen gako guztiak adieraziko dira, bai eta zer ezaugarri bete behar dituzten proiektuek, enpresek diru-laguntzak jaso ahal izateko.

**Prestakuntza-programa:**

Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomi Sustapen Sailaren Trantsizio Berderako Programa:

- Ingurumen-inpaktua neurtzeko diru-laguntzak.
- Inbertsio berdeetarako diru-laguntzak.
- Ingurumen-berrikuntzako eta ekonomia zirkularreko proiektuetarako diru-laguntzak.

**Hizlaria:**

**Aritz Kobeaga**
Beaz-eko Enpresa Lehiakortasuneko Zuzendaria.

**Aritz Kobeaga.** Industria Antolakuntzako ingeniaria (Deustuko Unibertsitatea). Berrikuntza eta ezagutzaren kudeaketa masterra Euskal Herriko Unibertsitatean. Esperientzia handia berrikuntza-proiektuen kudeaketan eta ebaluazioan, antolakuntza-eraldaketan eta negozio-eredu berrien garapenean. Gaur egun, Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomi Sustapen Sailak enpresen esku jartzen dituen ekonomia zirkularrarekin zerikusia duten programa eta zerbitzuen arduraduna da, eta Beaz-ek, erakunde kolaboratzaile gisa, kudeatzen duelarik.

Hondakinen kudeaketa eta prebentzioa zure enpresan

waste lab bizkaia

Bizkaia foru aldundia diputación foral

**10. MODULUA:**

# Gizonen eta emakumeen aukera berdintasuna

online Norberak aukeratua

**Helburuak:**

Aukera-berdintasunari buruzko prestakuntza-programaren helburua emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunari buruzko prestakuntza eta sentsibilizazio-jarduerak sustatzea eta garatzea izango da, legezko berdintasunaren eta benetako berdintasunaren artean dagoen aldea ezabatzeko. Programaren helburua gizonak eta emakumeak berdintasunaren gizarte-balioaz sentsibilizatzea da, gizarte-garapenerako ardatz gisa, eta hainbat esparrutako profesionalek genero-ikuspegia beren lan-jardueretan sar dezaten sustatzea.

**Prestakuntza-programa:**

- Genero-berdintasuna eta haren garrantzia.
- Hizkuntza inklusiboa.
- Oztopoak eta erronkak.
- Berdintasunean trebatzea, gizartea hobetzeko modu gisa.
- Nola sustatu berdintasuna eguneroko bizitzan.

**Hizlaria:**

**Adecco Learning & Consulting**

Adecco Learning & Consulting

**Adecco Learning & Consulting**. The Adecco Group Zuricheko (Suitza) giza baliabideen konpainia bat da. Adecco Taldeak 700.000 langile ingururi ematen die lana aldi baterako kontratuekin, eta 34.000 langile propio baino gehiago eta 5.200 bulego ditu 60 herrialde eta lurralde baino gehiagotan. Prestakuntza-banaketatik abiatuta, taldeak irtenbide ugari eskaintzen ditu, besteak beste, berdintasuna, aniztasuna eta iraunkortasuna, eta profesionalentzako hainbat ikastaro eta prestakuntza-modulu garatzen ditu, erakunde arduratsuagoak eta iraunkorragoak egituratzea errazteko.

Cofinanciado por la Unión Europea

Ministerio de Trabajo y Economía Social

Fondos Europeos

Gobierno de España

Fundación Biodiversidad

Empleaverde+

Bizkaia garbiker

Hondakinen kudeaketa eta prebentzioa zure enpresan

waste lab bizkaia

Bizkaia foru aldundia diputación foral



11. MODULUA:

# Trebetasun bigunak

online 2026/6/17

**Javier Galan**. Formatzailea, coach-a, mentorea eta hizlaria, Power Skills-en, komunikazioan, motibazioan, lidergoan, salmentetan eta kontzientzia altxatzen espezializatua. Kudeaketa eta komunikazio-gaitasunen garatzailea, lidergo jasangarri, koherente eta motibatzaileko taldeak lortuz.

## Helburuak:

Formakuntza saio honetan irakatsiko diren abilezia bigunak, sormena, pentsamendu kritikoa, etengabeko zalantzan jartzea (think out of the box) eta esperimentaziorako ausardia (make it yourself) sustatzera bideratuta egongo dira. Horretarako, formatzaileek parte hartzeko hainbat teknika eta dinamika erabiliko dituzte, hala nola ideia jasa eta bestelako talde dinamikak, soziogramak, gaitzeko herri jolasen egokitzapena, txotxongiloak, bideoak, marrazkiak eta parte-hartzea, analisia, hausnarketa eta jarrera aktiboa sortzea helburu duen beste edozein bitarteko.

## Prestakuntza-programa:

- Lidergoa.
- Talde-lana.
- Komunikazioa.
- Arazoak konpontzea.
- Denboraren kudeaketa.
- Antolaketa-trebetasunak.

## Hizlaria:

**Javier Galan**
Aholkularia eta coach-a.

Cofinanciado por la Unión Europea
Ministerio de Trabajo y Economía Social
Fondos Europeos
Empleaverde+
Bizkaia garbiker



# waste lab bizkaia

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

**waste lab bizkaia**

Euskadiko Parke Teknologikoa, Campus Zamudio Derio
Astondo Bidea, 602 - 48160 Derio (Bizkaia).

Tel. 946 782 873

https://garbiker.bizkaia.eus

**Izena eman hemen**

Proiektu hau FSE+ek kofinantzatzen du, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioko Biodibertsitate Fundazioaren Empleaverde+ Programaren bitartez.

Cofinanciado por la Unión Europea · Ministerio de Trabajo y Economía Social · Fondos Europeos · Empleaverde+ · Bizkaia garbiker

waste lab
bizkaia

CAMPUS WASTE LAB BIZKAIA

# Gestión y prevención de residuos en tu empresa

Formación **gratuita y certificada**, dirigida a trabajadores de PYMES, autónomos y profesionales por cuenta propia interesados en implementar **prácticas de economía circular**.



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Cofinanciado por la Unión Europea

Ministerio de Trabajo y Economía Social

Fondos Europeos

Empleaverde+

Bizkaia garbiker

Gestión
y prevención
de residuos
en tu empresa

waste lab
bizkaia

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

## Objetivo:

El fin último de la formación consistirá en que las personas que asistan al curso sean capaces de elaborar un Plan de Gestión de Residuos para una empresa, que busque la mejora en la prevención, la preparación para la reutilización y el reciclaje de los residuos en el ámbito de su actividad, de forma respetuosa con el medio ambiente y alineados con los Objetivos de Desarrollo Sostenible.

## Waste Lab Bizkaia:

Es el centro de referencia que impulsa la investigación, la innovación, la experimentación y la colaboración en torno a la sostenibilidad en la gestión de residuos y la economía circular en el ámbito de la prevención y gestión de residuos. Situado en el Parque Tecnológico de Euskadi, en Derio, se concibe como un centro de investigación y experimentación donde existen una serie de recursos materiales (equipamientos y materias primas) a disposición de personas procedentes de diferentes colectivos dedicadas a esas labores y que podrán interactuar con el público en general que visita las instalaciones, como parte de la actividad de sensibilización y divulgación que se desarrollará en ellas.




## Modalidad:

presencial y online (miércoles 15h):

- **9 módulos híbridos** (3h presenciales+ 1h online).
    - Formación presencial: miércoles 15h-18h.
    - Formación online (tutoría): miércoles 15h-16h. (el miércoles siguiente a la formación presencial).
- **2 módulos 100% online** (4 horas).

## Metodología:

Clase magistral presencial, que concluirá con el lanzamiento de un caso a resolver en las dos semanas siguientes por parte del alumnado. Durante ese tiempo, contará con una tutorización, consistente en una reunión telemática de 1h y la resolución de dudas que pueda plantear el alumnado a través de correo electrónico.

Reserva tu plaza ahora y forma parte del cambio:

**Inscríbete aquí**

Gestión y prevención de residuos en tu empresa

waste lab bizkaia

Bizkaia foru aldundia diputación foral

**Calendario:**
de febrero a junio de 2026 (clase quincenal).

| | | |
|---|---|---|
| MÓDULO 1: **Introducción a la economía circular** | 04 de febrero | 15h-18h |
| MÓDULO 2: **Marco normativo y políticas de economía circular** | 11 de febrero | 15h-18h |
